

Didier Deschamps • VALENTZIAKO JOKALARIA •

A. Arzallus - E. Esnaola / Donostia

DIDIER DESCHAMPS lapurtarra da gaur egun Europan jokatzeko ari diren jokalarien arteko taldeko edo selekzioa palmaresik onena daukan futbolaria, izugarrikoa baita. Taldeko orain arte Frantziako, Italiako eta Ingalaterrako ligetan aritu da, Marseillea, Juventus eta Chelsea taldeetan hurrenez hurren; Italiakoa iruditu zaio Ligarik onena —«irabazteko entrenatzen zara han»—. Orain beste Liga garrantzitsu batean ariko da: Espainiakoa, Valentziak fitxatu baitu Chelseatik, 660 milioi pezetan (26,4 milioi libera). Eta jadanik bere karreraren amaieran dagoen arren, gogotsu dago. «Ez nago oporrak hartzeko asmoarekin, ezta erretiroan pentsatuz ere. Irabaztera etorri naiz. Frantziako, Italian eta Ingalaterran tituluak irabazi ditut, eta Valentzian ere tituluak irabazteko asmoa dut». Gaizka Mendieta bizkaitarra izango du ondoan han. «Mendietak izaera handia du, eta eredu da beste jokalarientzat».

Deschamps ez du aparteko dohain teknikorik, baina mutil argia da, badaki zelaian ondo kokatzen, sasoi polita du —«baina nik ere bi birika baino ez ditut», dio txantxetan—, eta lider izaera du. «Didierrek beti jakin izan du leku onean eta une egokian egotea», dio Michel Platinik. Zinedine Zidane ere asko miresten du Deschamps, baita honek hura ere. «Zidane da nire garaiko jokalaririk onena. Juventus eta Frantziako selekzioan haren atzetik jokatzeko nuen, eta Zidanek ni behar ninduen, baita nik hura ere. Harreman ona geneukan zelaian eta kanpoan», dio jokalaria lapurtarrak.

Etiket kanpora, kanpotik etxera

Deschamps EGUNKARIARI gogoratzen dionez, aita errugbilaria zuen eta tentatzen zuen kirol horrek, baina futbolari heldu zion segituan, eta Baionako kaleetan lagunekin hasi zen baloiari ostikoak jotzen. Hamahiru urte egin zituen erako hasi zen serio antzean hartzen futbola, Baionan, Aviron taldean. «Baina hamabost urte betetzear nintzela Naonedera joan nintzen [Britainia; hangoa du emaztea], hangoa prestakuntza zentrorra, beste eskaintza batzuk ere banituen arren». Hantxe hasi zen Frantziako Lehen Mailan jokatzeko. Hamazazpi urte darama-

«Futbola utzitakoan etxera itzuliko naiz, baina oraindik hiru urte on dauzkat»

Valentziako aroa

■■■■ «Ez nago oporrak hartzeko asmoarekin, ezta erretiroan pentsatuz ere»

Euskal Herria

■■■■ «Odolean daramat, oso lotua nago»

tza, beraz, etxetik, Euskal Herriko kanpo Deschamps. Eta badu itzultzeko gogo, bere-berea ei duelako «eskualde» hau. «Egiten dizkidaten elkarrizketetan behin eta berriz ateratzen da gai hori. Frantziako selekzioan geundenean jendeak zioen Bixente Lizarazu eta biok beste taldekideak baino lotuago sentitzen ginela geure sustraiekin, eta hori hala da; izan ere, odolean daramagu geure eskualdea, oso lotuta gaude, eta ahal dugunean itzultzen gara. Alde horretatik, futbola utzitakoan etxera itzuliko naiz, hori da eta ni gustura sentitzen naizen tokia», esana dio Deschamps egunkari honi. Ahetzen (Lapurdi) du etxe bat egina, eta agian hara joango da bizitzera. Baionan, berriz, bere izea dauka iragan uztailetik futbol estadioak; Frantziako selekzioarekin Eurokopa irabazi ondoren jarri zion Avironen izen hori, eta omenaldi hartan izan zen Deschamps.

Oraindik, ordea, ez du futbola uzteko asmorik. «Fisikoki eta psikologikoki oso ondo nago, eta ez naiz ari erretiroan pentsatzen, oraindik hiru urte on geratzen zaizkit eta».

Honezkeroko goi mailan euskal talderen batean jokatu gabe erretiratuko da. Orain urte batzuk Athletic atzetik izan zuen, baina, azkenean, fitxaketa ez zen gauzatu. Geror ere egon zen aukera bat, «baina trena pasatu zen», esan zuen Jose Mari Arrate, Athleticen presidentea.

Didier Deschamps

Nongoa: Baiona.
Adina: 31 urte (1968-10-15).
Pisua: 71 kilo.
Garaiera: 1,74 metro.
Taldeak: Baionako Aviron (76-83), Naoned (83-89), Olympique Marseille (89-90), Girondins (90-91), Marseille (91-94), Juventus (94-99), Chelsea (99-00), Valentzia (2003 arteko kontratua du).
Ligak: Frantziako bi (90, 92), Italiako hiru (95, 97, 98).
Kopak: Italiako bat (95), Ingalaterrako bat (00).
Europako Kopak-Txapelunen Ligak: Olympiqueekin bat (93), Juventusekin bat (96).
Kontinenteen Arteko Kopa: Juventusekin bat (96).
Eurokopa: Txapelkun 2000n Frantziarekin.
Mundiala: Txapelkun 1998an Frantziarekin.
Internazional: Frantziarekin 103 aldiz (erretiratu berri da); Euskal Herriarekin inoiz ez du jokatu.



Didier Deschamps lapurtarra, abuztuan, Valentziaren aurkezpenean.